# www.stee-eilas.org

# Txapela buruan eta ibili munduan - Bizirik irauteko eskuliburua ordezkoentzat

## 2009-2010 IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK ESLEIPENAK

**EKITALDI BAKARRA:** hiru lurraldetako lanpostu guztiak esleitzen dira (Bilbon).

**ZERRENDA BAKARRA:** zerrendako puntuazioaren ordena jarraituz, kolektiboka esleipen desberdinetan:

- Maisu-maistrak
- Bigarren hezkuntza (+EOI + Kontserbatorioetako teorikoak)
- Lanbide heziketako irakasle teknikoak
- Kontserbatorioetako instrumentalak

Edozein habilitazio/espezialitateko lanpostuak aukera ditzakete ordezkoek baldin eta dagokion zerrendan izena eman badute eta 1 Kidetasuna badute. 2HE izateak ez du behartzen perfil bereko plaza hartzen.

**DERRIGORREZKOA** izango da deituak diren unean dauden plazak hartzea. Hartzen ez badute, ikasturte hasierako esleipen ekitaldi publikoak bukatu arte EZ DIRA DEITUAK IZANGO (telefonoz emandako ordezkapenak). *TELEFONOZ zerrendaren hasieratik hasiko dira berriro deitzen.*

**EZ JOATEA:** “pisuzko arrazoiak” soilik onartuko dira eta ekitaldia ospatzen denetik bost lanegunetara aurkeztu beharko da ziurtagiria.

**ERRESERBATZEKO AUKERA:** posible izango da soilik honako kasu hauetan:

- **A)** Beste talde batean (deituak izango dira izena emanda dauden beste taldeko esleipenetan).
- **B)** Beste Autonomia Elkartean (esleipenen ostean telefonoz deituak izango dira)

**EGIAZTAGIRIA:** Administrazioak harturiko lanpostuen zerrenda argitaratuko du bere web orrian ekitaldi bakoitzaren ostean. Honela harturiko lanpostuaren egiaztagiria izango duzu. Harturiko lanpostuaren definizioa ezin izango da aldatu ordezkoa ikastetxera iristen denean (arautegian horrelaxe jasota dago).

**ARAZOAK ESLEIPENEAN:** Ikasturte hasierako esleipenean edo ikastetxera heltzerakoan arazorik suertatzen bazaizu (plaza ez existitzea, plazaren definizioa aldatzea, etab) lehenbailehen ordezkari sindikalengana jo ezazu arazoari irtenbidea bilatzen saiatzeko.

**ERRELEBU KONTRATUKO LANPOSTUAK:** lan-legepeko kontratuak dira, eta 5 urtetarainoko luzerakoak izan daitezke. Baten bat interesatzen bazaizu, galdetu eta informa zaitez lanpostua hartu baino lehen.

**ZAINTZAGATIKO PLAZAK**: Kontuz! Arrazoi honengatik lizentzia hartzen duten langileek edozein unetan lanera buelta daitezke, ordezkapenari amaiera emanez.

**DATAK**: Erne ibili! oso epe laburrean bigarren txanda bat egitea gerta daiteke.


| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **ARABA**: Fuente de los Patos 2-3.C | 01001 Gasteiz | ☏ 945 14 11 04 | 🖷 945 14 43 02 | araba@stee-eilas.org |
| **BIZKAIA:** Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu) | 48003 Bilbao | ☏ 944 10 02 98 | 🖷 944 10 13 60 | bizkaia@stee-eilas.org |
| **GIPUZKOA:** Baso-txiki 30-34 (atzealdea) | 20006 Donostia | ☏ 943 46 60 00 | 🖷 943 45 36 27 | gipuzkoa@stee-eilas.org |
| **NAFARROA:** Descalzos 72 (lonja) | 31001 Iruñea | ☏ 948 21 23 55 | 🖷 948 22 97 90 | nafarroa@stee-eilas.org |

# ZERRENDAK, KONTRATUAK ETAB

**Zerrendak** puntuen arabera ordenatzen dituzte, irizpide hauek kontutan hartzen direlarik:

- ✓ Irakaskuntza arautuetan egindako zerbitzuak.
- ✓ Espediente akademikoan lorturiko nota.
- ✓ Lanbide Heziketako praktiketako zerrenden kasuan, lanbide esperientzia.
- ✓ Kontserbatorioetako espezialitate instrumentaletan, musika jarduera.

**Hiru herrialdeetako zerrendetan bazaude**, ondo baloratu behar dituzu zure interesak, edozein herrialdetatik deituz gero, ezetza emateak hiru herrialdeetako zerrendetatik desagertzea suposatzen du eta.

Hala ere, uko egiteko hainbat arrazoi onartzen dira (bajan egon, lanean egon, ikastaroak edo ikasketak egiten egon...) Arrazoi horietakoren bat alegatuz gero dagozkion frogagiriak aurkeztu behar dituzu. Berriro zerrendetan libre moduan jartzea nahi baduzu, aurretik alegatu zenuen egoeraren bukaera ziurtagiri baten bitartez jakinarazi behar da.

**Ordezkapena lortu baduzu,** ikastetxeko idazkaritzara joan eta paperak lehenbailehen bete. Bestela kotizazio egun batzuk gal ditzakezu; paperak ikastetxetik lurralde ordezkaritzara iritsi eta konprobatu ondoren, handik Gizarte Segurantzara bidali behar baitituzte eta honek bere denbora darama.

Bestetik, zure lanegun kopurua noizbehinka egiaztatzea komeni da; hau, edozein Gizarte Segurantza bulegotan (bertaratuz zein internetez), zure bizitza laborala eskatuz egin dezakezu.

Bizitza laboral honek garrantzi handia dauka gerora begira, erretiroa eta langabezia-saria honi lotuta baitoaz. Kotizatutako egunak zerbitzu egunak baino gutxiago badira, erreklamazioa aurkeztu lurralde ordezkaritzan eta haren kopia bat (sarrera zigilu eta guztiz) gorde.

**Zure ordutegia arreta handiz aztertu** eta kontutan hartu, lan hitzarmenaren arabera, Bigarren Hezkuntzarako topea 17 eskola ordukoa dela (ikasleekiko tutoretza barne), 18koa salbuespen bezala onartuta dagoelarik. Lehen Hezkuntzan, berriz, 23 eskola ordu bete ditzakezu gehienez (jolasaldiak barne).

Lanbide Heziketan, 25 klase orduetara arteko irakastaldiko ordezkapenak zatitu ahal dira. Zure ordutegia 18 ordutik gorakoa bada, sindikatuan galdetu ematen diren egoerak oso anitzak baitira eta bilatu daitezkeen irtenbideak ere.

Dena den, zure ordutegiarekin zalantzak izanez gero (lanpostu ibiltariak, jardunaldi murriztuak...) gurekin kontaktuan jar zaitez eta saiatuko gara zure egoera argitzen.

**Zure ordezkapena bukatzerakoan,** lurralde ordezkaritzan abisua eman ahalik eta lasterren. Errakuntzaren bat suertatzen denean, idatziz aurkezturiko dokumentua erantsirik daramaten erreklamazioak soilik onartuko dituzte.

Hau dela eta, telefono deia egiteaz gain, ikastetxetik bertatik, ordezkaritzara fax bat bidaltzea gomendatzen dizugu, libre zaudela esanez eta kopia bat gordetzea.

**Birbaremazioa.** Ordezkoen zerrendak apirila eta maiatza artean gaurkotzen dira. Epe horretan guztiok joan behar dugu ordezkaritzetara gure zerbitzu-orriaren bila, hau baita une egokia gure datuak zuzenak direla egiaztatzeko edo/eta nahi izanez gero aldaketak egiteko: lurralde batetan izena eman/kendu, jardunaldi mota aukeratu, espezialitateak gehitu/kendu, libre gisa agertu...

Puntu kopurua ondo dagoen ala ez konprobatze aldera, hau jakitea komeni zaizu: sare publikoan egindako zerbitzuek puntu bat gehitzen dute 60 eguneko, eta pribatuan egindakoek 0´33 puntu 60 eguneko. Hezkuntza Sailaren menpe ez dauden ikastetxe publikoetan eginiko zerbitzuak ere pribatukoak bezala barematzen dira, baldin eta irakaskuntza arautuan bete badira.

**Lan jardunaldi murriztua**. Aukera ona izan daiteke puntuak pilatzeko, zerbitzualdiak jardunaldi osoan egindakoak bezala balio duelako baina bere ondorioak ere baditu: soldata eta Gizarte Segurantzako kotizazioa kontratuaren araberakoak izango dira (erdia, herena, edo, bigarren hezkuntzan, ordu lektiboekiko proportzionala). Kontuan hartu langileak legez agindutako zaintza duelako murrizketa eskatu badu, edozein unetan uko egin ahal duela, eta ondorioz ordezkapena amaitu egiten dela.

Eskaintzen zaizun lan jardunaldi murriztuko ordezkapena zure bizilekutik (lurralde ordezkaritzan jasota dagoen bizilekua) 50 km. baino urrutiago badago lanpostuari uko egin diezaiokezu zerrendatik erori gabe.

Gainera, eskain dakizukeen gutxieneko lanpostua herenekoa (bigarren hezkuntzan 6 ordukoa) izan behar da.

Jardunaldi murriztuko lanpostu batean zaudelarik zure soldata INEMek ordaintzen duen langabeziko prestazioarekin osatzeko aukera daukazula, baldin eta aldez aurretik eskubide hori sortu baduzu. Sindikatuan informa zaitez edo/eta INEMen neurri hau zelan aplikatuko litzaizukeen galdetu.

*Ikasturte hasierako Zirkularrean* jardunaldi murriztuetarako eskola-orduen banaketaren inguruko iradokizunak egiten direla.

**Uda kobratu.** Ikasturtean zehar 165 egun lan eginez gero, uztaila eta abuztua kobratzea bermaturik daukazu, gainera epe honetan Gizarte Segurantzan altan egongo zara, eta puntu bat lortuko duzu 60 egun horiengatik; baina egun kopurua txikiagoa bada, kobratzen diren egunen proportzioa asko murrizten da (14 egun kobratuko dira 164 egun lan eginez gero eta bat ere ez 6 egun baino gutxiago egin badira).

Opor garaia heldu eta titularrak bajan jarraitzen badu, ordezkoak egun horiek kobratzeko aukera du, nahiz eta zerbitzu egunen arabera uda osoa kobratzeko aukerarik ez izan.

Edozein kasutan zure kontratua abuztuaren 31an bukatuko zaizu maisu-maistra bazara eta irailaren 7aren inguruan bigarren hezkuntzakoa bazara.

**Hirurtekoak eta lehenengo seiurtekoak**. Zerbitzuetako lehendabiziko hiru edo/eta sei urte metatu bezain pronto idatziz ordaindu diezazutela eskatu behar duzu lurralde ordezkaritzan. Hezkuntza Sailak konpromisoa hartu zuen hurrengoak (bigarrenetik aurrera) automatikoki ordaintzeko (hau da, eskatu barik), baina halere erne ibili behar duzu. (Gogoratu: 1 urte = 360 egun)

**Langabeziaren kobraketa.** Txandaka lanik egin gabe egoten bazara edo/eta jardunaldi murriztuko lanpostua betetzen baduzu paroa kobra dezakezu azken 6 urteetan 360 egun lanean bete badituzu. Kontuz datekin zeren 15 egunetako epea daukazu eskaera egiteko.

**IRALE eta GARATU.** Prestakuntza (Garatu) kurtsoetan eta euskalduntze txandetan (IRALE) parte hartzeko eskubidea daukazu (baldin eta zerbitzu aktiboan bazaude).

Lan Baldintzak arautzen dituen Hitzarmenean jasotzen dira kopuruak, hala nola beste gai batzuk Irakasleriaren Prestakuntzari buruz. Ikastaro hauetan parte hartzeko baldintzen inguruko zehaztapenak deialdietan jasotzen dira.

**Baimenak eta lizentziak.** Hainbat lizentzia eta baimen (akordioan zehaztuta daudenak) hartzeko aukera badaukazu ere, kasu batzuetan ezinbestekoa da lanean urte oso bat beteta izatea.

**Norberaren eginbeharretarako baimena** urte betez etengabe lan egin ondoren eta urte osorako lanpostua edukirik eska daiteke. Egun horiek ere, zerbitzu egun bezala zenbatzen dira (puntuak pilatzeko, antzinatasunerako, etab.).

# BAJAK ETA EGOERA BEREZIAK

**Amatasuna:** Lizentzia hau 18 astekoa da; hauetatik 16 aste Gizarte Segurantzak ordaintzen ditu, gainontzeko bi asteak Eusko Jaurlaritzak ordaintzen dituelarik. Amatasun baja lanean zaudela hartzen eta bukatzen baduzu, primeran! 18 astekoa izango duzu. Zure kontratua baimena baino lehen bukatzen bada edo eta eten bat badu, egun bakarrekoa bada ere, Gizarte Segurantzako 16 asteak baino ez dituzu kobratuko, baldin eta azken bost urteetan 6 hilabeteko kotizazioa bete baduzu.

**Lan istripua, lanbide gaixotasuna, amatasun lizentzia edota haurdunaldi arriskutsua:**

**a)** Ikasturte hasierako edo eta IRALEren bigarren txandako esleipenetan lanpostu bat lor dezakezu eta baimena bukatzerakoan lanpostu horretara sar zaitezke lanpostua mantentzen bada.

**b)** Lanean ez bazaude eta ordezkapen berri bat eskaintzen badizute, uko egin diezaiokezu eta ukorik egin ez bazenu bezala dei egingo zaizu.

Kasu horretan eskainitako ordezkapen egunak, zerbitzu egun bezala kontatzen dira puntuak pilatzeko eta udako ordainketak jasotzeko baina ez dira kontuan hartuko antzinatasuna eta erretirorako.

Alta hartu edo lizentzia bukatu ondoren lanerako prest zaudela abisatu.

**Aldi baterako etetea, (3 urte baino gazteagoa den seme-alaba zaintzeko "eszedentzia".)**

1.- Edozein unetan eskatu ahalko da, behin baino ez, eta, gehienez, adingabeak hiru urte bete arte luzatuko da.

2.- Lanpostua gordeko da etetea hasten den ikasturtean, baldin eta etetea hastean, onuraduna ikasturte osoko lanpostu hutsa betetzen ari bazen.

3.- Aldi baterako etete-egoera ez da jarduneko zerbitzutzat hartzen, ez da kobratzen eta egoera horretan ematen den denbora ez da kontuan hartzen antzinatasunerako, ez hirurtekoetarako, ezta LEPetarako ere.

Hala ere, ordezkogaien kudeaketarako zerrenda berriro barematzerakoan kontuan izango da aldi baterako etete-egoeran emandako denbora, libre egon izan balitz onuradunari egokituko litzaizkiokeen lanpostu hutsak edo ordezkapenak beteko zituzkeela aintzat hartuta.

4.- Onuradunak gutxienez 20 egun lehenago adierazi behar du, idatziz, lanera bueltatuko dela, seme-alabak hiru urte betetzean edo hori baino lehenagoko edozein unetan.

**OHARRA:** informazio gehiagorako gurekin kontaktuan jar zaitez edo/eta dagokizun lurralde ordezkaritzarekin. Era egokian informatzea gomendatzen dizugu neurri honen inguruan nahaste ugari egon baita.

**Gaixotasun arrunta**. Ordezkapen edo bakante bat eskuratu (esleipenetan zein telefonoz) eta lehen lan egunean gaixorik bazaude, ezin duzu zure lanpostuaren jabetza sinatu gaixotasun arruntagatiko bajan egonik. Horrela balitz, zure izendapena ez litzateke benetan gauzatuko. Ordezkapena betetzen ari zaren bitartean baja hartzen baduzu eta bitarte horretan titularra lanera bueltatzen bada, zuk alta hartu arte, epe horretan dauden egunak Gizarte Segurantzak ordainduko dizkizu baina egun horretatik aurrera paroa kontsumitzen hasiko zara

**Heziketa zikloetako lanpostuak eta berariazkoak.** Heziketa zikloetako lanpostuen profilak ziklo bakoitzaren OCDen arabera egiten dira. Modulu bakoitzari gelan garatu beharreko errealizazioen zerrenda dagokio. Horrela, zikloetako lanpostu bakoitzari errealizazioen zerrenda bat dagokio irakatsi beharreko moduluen araberakoa. Lanpostuen profilak hautagaiari ezagutu arazi egin behar zaizkio lanpostua esleitu baino lehen.

Ikastetxe batean arazoak sortzen direnerako protokolo bat garatu da. Protokolo honen arabera ordezko batek uko egin ahal dio lanpostu bati edukiak emateko gai ikusten ez badu bere burua. Baita ere jaso egiten da zuzendaritzak bere gaitasuna zalantzatan jartzen duenean jarraitu beharreko prozedura.

Honek **ez** du suposatuko zerrenda horretatik kanporatua izatea. Gauza bera egin daiteke berariazko profilak zein zailtasun bereziak dituzten bestelako lanpostuekin.

Helburua, azken urteotan sorturiko arazo batzuk saihestea litzateke, baina erne ibili behar da gehiegikeri edota nagusikeriarik ez jasotzeko.

**Zalantza batzuk argitu dizkizugulakoan gaude. Bestalde, argibide edo informazio gehiago behar izanez gero, deitu edo etorri sindikatura.**

# INTERINOEN FINKAPENAREN AURREAN, BENETAKO EGONKORTASUN AKORDIOAREN ALDE

Prozesu hau 2007ko ekainean Hezkuntza Sailak eta CCOOk sinatutako akordiotik dator. Negoziazioak iraun zuen bitartean, hainbeste urtetan irakasle askoren lanpostua bermatu zuen Egonkortasun Akordioaren mantentzea defendatu genuen, eta egun orduko hura berresten dugu. Aurten gauzatu den prozesuak ez du bermatu eskubidea duten pertsona guztien finkapena, eta ondorio oso ezkorrak eman ditu zenbait kasutan.

**Nortzuk finkatzen ari dira 09/10 ikasturtean?** Aurreko ikasturtearen hasierako esleipenetan emandako jardun osoko lanpostuen %60a da finkatzeko eskubidea duten pertsona kopurua. Pertsona horien %35a ezin izan geratu bere lanpostuan eta esleipenetara joan behar du. Edozein kasutan argi dago **finkapena ez dela egonkortasuna**.

**Zein baldintza bete behar da finkatua izateko?** Urte osoko lanpostua izatea, edo, gutxienez, otsailaren lehen lanegunetik ikasturtearen amaiera arte ikastetxe berean era jarraian lanean aritu izana.

**Gaixotasun baja edo etete iragankorreko egoera ematen bada?** Finkatua izateko eskubidea onartuko zaie aurreko ikasturteko erreferentzia-plaza ikasturte osoko lanpostua izan bada.

**Zein ikastetxean gauzatzen da finkatzeko eskubidea?** Aurreko ikasturtean lanean aritutako ikastetxean (erreferentziako ikastetxea). Bat baino gehiago izan badira, otsailaren lehenengo lanegu-nean hasi eta ikasturtearen amaiera arte zerbitzuak eten gabe emandako ikastetxea izango da.

**Finkapenari uko egiterik ba al dago?** Ikastetxean 2 urtez egotea ezinbestekoa da borondatezko autodesplazamendua eskatu ahal izateko, eskaera hori ekainaren bigarren hamabostaldiaren inguruan egin ohi da finkatua izateko eskubiderik izango duzun ala ez jakin gabe. Uko egitea onartuz gero, erreferentziako ikastetxea galduko da, eta interesatuak esleipenetan parte hartu beharko du.

**Ikastetxe bereko beste lanposturen batean finkatzeko aukerarik ba al dago?** Aurreko ikasturtean betetako lanpostu hori ez balego edo lanpostua lehentasun gehiago duten taldeetakoren batek edo eskubide handiago duen beste bitarteko irakasle batek bete badu, orduan ikastetxean libre dagoen beste lanposturen batean finkatuko dira irakasleak, baldin eta lanpostu hori pertsona parte hartzen duen kidegokoa eta zerrendan agertzen den espezialitate batekoa bada eta pertsonak lanpostua betetzeko baldintza guztiak betetzen baditu. Finkapen hau gauzatu ondoren, lanpustu hutsak geratuko balira, hauetakoren bat hartzeko aukera izango da, beharrezko titulazioa izanez gero.

**Zer gertatzen da pertsona bat baino gehiago elkartzen bada plaza bakarra betetzeko? E**rreferentziako ikastetxe horretan duten antzinatasunaren arabera ordenatuko dira. Antzinatasun bera izanez gero, berriz, ordezkoen zerrendan duten puntuaziora joko da eta, azkenik, zerrenda horretan duten hurrenkera erlatibora.

**Lanaldi murriztuko lanpostutan finkatzerik ba al dago?** Hasieran ez, lanaldi osoko lanpostuak baino ez dira erabiliko, eta lanpostua eskuratu eta gero lanaldia murriztea eskatu ahal izango dute. Finkapena gauzatu ondoren, lanaldi murriztuko lanpostuak hartzeko aukera izango da, ikastetxean lanpostu hutsak izanez gero.

**2. kidetasuneko lanpostuetan finkatzerik ba al dago?** Ez, 1. kidetasuna soilik hartuko da kontuan.

# EZAGUTZEA KOMENI ZAIZUN ARAUDIA

## ZERRENDETAKO FUNTZIONAMENDUA, ESPEZIALITATEAK ...

**EBAZPENA, 2004ko maiatzaren 26koa**, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Zuzendariarena, zeinaren bidez onartu baitira EAEko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko jarraibideak. (**EHAA 04-06-11**)

**EBAZPENA, 2005eko apirilaren 20koa**, 2004ko maiatzaren 26ko Ebazpena aldatzen duena. (**EHAA 05-05-09**) (Akatsen zuzenketa 2005eko maiatzaren 18ko Ebazpenean, EHAA 05-07-07).

**EBAZPENA, 2007ko martxoaren 26koa,** 2004ko maiatzaren 26ko Ebazpena aldatzen duena. (**EHAA 07-04-12) (Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Hizkuntz Irakaskuntzako mailei dagokien taulen aldaketak)**

**EBAZPENA, 2006ko ekainaren 20koa,** 2004ko maiatzaren 26ko Ebazpena aldatzen duena. (**EHAA 07-04-12) (Pribatuko Zerbitzuak)**

**EBAZPENA, 2007ko abenduaren 11**koa, 2004ko maiatzaren 26an emandako ebazpena aldatzen da. **(EHAA 08-01-01) (Zerrendak zabaltzea eta agiriak)**

**EBAZPENA, 2008ko apirilaren 11koa**, 2004ko maiatzaren 26ko Ebazpena aldatzen da. **(EHAA 08-05-02) (Erlijioa)**

## PLAZEN ESLEIPENAK

**Ikasturte Hasierako Esleipenei buruzko ARAUDIA,** ekainetik aurrera eskegi ohi dute, gure egoitzetan ere badago.

## LAN BALDINTZA OROKORRAK

**DEKRETUA, 2007ko urriaren 23koa**, EAEko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena. **(EHAA 07-10-23)**

## ZENTRUEN FUNTZIONAMENDUA

**Ikasturte Hasierako EBAZPENA** urtero gaurkotu eta Saileko web gunean eskegi egiten dute, ikastetxe guztietan ere eskuragarri dago.

**AJA** (Antolakuntza eta Jarduera Araudia), ikastetxe bakoitzak eginda.











# NORMATIVA QUE CONVIENE CONOCER

## FUNCIONAMIENTO DE LISTAS, ESPECIALIDADES ETC..

**RESOLUCIÓN de 26 de mayo de 2004**, de la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se aprueban instrucciones para la gestión de la lista de candidatos/as a sustituciones de personal docente en centros públicos no universitarios de la CAV. (**BOPV 11-06-04**)

**RESOLUCIÓN de 20 de abril de 2005**, por la que se modifica la Resolución de 26 de mayo de 2004. (**BOPV 9-05-05**) (Corrección de errores en BOPV 7-07-05)

**RESOLUCIÓN de 20 de junio de 2006**, de modificación de la Resolución de 26 de mayo de 2004. (**BOPV 06-07-06) (Modificación de tablas de Secundaria, FP y enseñanzas de idiomas)**

**RESOLUCIÓN de 26 de marzo de 2007**, de modificación de la Resolución de 26 de mayo de 2004. (**BOPV 12-04-07) (Servicios en Privada)**

**RESOLUCIÓN de 11 de diciembre de 2007**, de modificación de la Resolución de 26 de mayo de 2004. **(BOPV 03-01-08) (Apertura precipitada de listas y certificados y expedientes)**

**RESOLUCIÓN de 11 de abril de 2008**, de la Directora de Gestión de Personal, de modificación de la Resolución de 26 de mayo de 2004**. (BOPV 02-05-08) (Religión)**

## ADJUDICACIONES DE PLAZAS

**Normativa de "Adjudicación de Comienzo de Curso",** disponible en la web del departamento a partir de junio, y en las sedes del sindicato.

## CONDICIONES LABORALES EN GENERAL

**DECRETO, del 23 de octubre de 2007**, Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la CAV. **(BOPV 23-10-2007)**

## FUNCIONAMIENTO DE LOS CENTROS

**RESOLUCIÓN de Comienzo de Curso**, se actualiza cada año y está disponible en todos los centros y colgada en la web del departamento

**ROF** (Reglamento de Organización y Funcionamiento) del centro al que te incorporas.











# FIJACIÓN DE INTERINOS E INTERINAS. POR UN VERDADERO ACUERDO DE ESTABILIDAD

Este proceso emana del Acuerdo firmado entre el Departamento de Educación y CCOO, a espaldas de la mayoría sindical, en junio del 2007. A lo largo del proceso de negociación defendimos el mantenimiento del Acuerdo de Estabilidad que durante tantos años aseguró el puesto de trabajo a un número importante de docentes y hoy nos reafirmamos en ello. Este proceso no va a garantizar la fijación ni siquiera a todas las personas que tienen derecho a ella y puede tener consecuencias negativas en algunos casos.

**¿Qué personas se están fijando en 09/10?** Tomando como referencia las plazas de jornada completa adjudicadas a principios del curso anterior, el 60% de ellas es el número de personas que tienen derecho a fijarse, en Primaria ha podido fijarse el 65% (1165) de quienes tienen este derecho, el resto debe ir a la adjudicación. En todo caso está claro que **la fijación no es la estabilidad**.

**¿Qué requisitos hay que cumplir para se fijado-a?** Tener vacante de año o haber prestado servicios ininterrumpidamente en un centro al menos desde el primer día laboral del mes de febrero hasta la finalización del curso.

**¿En caso de baja médica o suspensión transitoria?** También se reconocerá su derecho a fijación siempre que la plaza de referencia del curso anterior fuese una vacante de curso completo.

**¿De qué centro emana el derecho a fijación?** De aquel en el que se han prestado servicios durante el curso anterior y si se ha estado en varios centros, será aquel en el que se ha trabajado ininterrumpidamente desde el primer día de febrero hasta el final de curso.

**¿Se puede renunciar a la fijación?** Se exigen 2 años de permanencia en el centro para poder pedir el autodesplazamiento voluntario, este se hace a ciegas, es decir sin saber si tendrás derecho a fijación y la fecha para solicitarlo es sobre la segunda quincena de junio. La aceptación de la renuncia implica la pérdida del centro de referencia y la participación en la elección con el orden de lista correspondiente.

**¿Se puede fijar en otras plazas distintas del mismo centro?** Si la plaza que desempeñó el curso anterior no existiera o hubiera sido ocupada por colectivos de mayor derecho, sería fijado en otras plazas del centro disponibles siempre que pertenezcan al grupo por el que se participa, sean especialidades y perfil para los que se está habilitado. Una vez realizada esta fijación, si quedaran plazas vacantes en el centro, se podrá optar a ellas siempre que se cuente con la titulación correspondiente.

**¿Qué ocurre si coinciden dos o más personas para una misma plaza?** Se ordenarán de acuerdo con la mayor antigüedad en el centro de referencia. Si persiste el empate, se atenderá a la puntuación en la lista y al orden en la misma.

**¿Puede haber fijación en plazas de jornada reducida?** No, en un primer momento sólo se utilizarán plazas de jornada completa con independencia de que posteriormente se soliciten las reducciones a que se tenga derecho. Una vez realizada la fijación se podrá optar a plazas de jornada reducida si existiesen en el centro.

**¿Hay posibilidad de fijación en plazas de afinidad 2?** No, la fijación sólo se llevará a cabo en virtud de titulación con afinidad 1.

# BAJAS Y SITUACIONES ESPECIALES

**Maternidad.** Esta licencia es de 18 semanas, de las cuales la Seguridad Social paga 16 y el Gobierno Vasco las dos restantes. Si acabas la baja maternal durante el tiempo que estás contratada, genial. Si tu contrato termina antes o si hay alguna interrupción aunque sea de un solo día, la Seguridad Social sólo te pagará 16 semanas, siempre que hayas cotizado seis meses en los últimos 5 años.

**Accidente laboral, enfermedad profesional, maternidad o riesgo durante el embarazo:**

**a)** Puedes coger una plaza en las adjudicaciones de comienzo de curso o del segundo turno de IRALE para que una vez finalizada la licencia te incorpores a dicha plaza si esta se mantiene.

**b)** Si no estás trabajando puedes renunciar a una sustitución que te ofrezcan sin decaer de listas y se te seguirá llamando para otras como si no hubieras renunciado.

Estos días cuentan para acumular puntos y para el cómputo del cobro de las retribuciones del verano, pero no a efectos de antigüedad, jubilación etc.

Cuando estés disponible, avisa en Delegación.

**Suspensión transitoria (*"excedencia"* por cuidado de menores de 3 años).**

1.-Se puede solicitar en cualquier momento, por una sola vez, y se extenderá, como máximo, hasta que el hijo/a cumpla tres años.

2.- Esta situación conllevará la reserva de plaza durante el curso en que se inicie la misma, únicamente si al inicio de su disfrute se estuviera ocupando una vacante de curso completo.

3.- La situación de suspensión transitoria no se considera servicio activo, no se cobra y el tiempo de permanencia en la misma no computa a efectos de antigüedad y trienios ni para las OPEs.

No obstante, el tiempo de permanencia en dicha situación que esté soportado en la cobertura de una vacante o en la sustitución o sustituciones que le hubieran correspondido al beneficiario/a en caso de estar disponible, se computará a efectos de rebaremación de la Lista de Candidatos/as.

4.- El/la beneficiario/a deberá comunicar por escrito con 20 días de antelación, como mínimo, su reincorporación, por cumplir el/la menor los tres años o en cualquier momento anterior a esa fecha.

**NOTA:** Te recomendamos que te informes correctamente, ya que ha habido bastante confusión en torno a esta medida

**Enfermedad común.** Si consigues una vacante o sustitución (en las adjudicaciones o por teléfono) y estás enferma/o el día de incorporarte a tu puesto, no puedes firmar la toma de posesión estando de baja por enfermedad común. Si fuera así la toma de posesión no se haría efectiva.

Si coges la baja mientras estás cubriendo una sustitución y la persona titular se reincorpora antes de que tengas el alta, ese período te lo pagará la Seguridad Social pero comenzarás a consumir el paro desde el primer día y no acumularás servicios.

**Plazas de ciclos formativos y específicas. (Protocolo)**

La perfilación de las plazas de ciclos formativos se hace en base a los DCB de cada ciclo. A cada módulo le corresponden una serie de realizaciones a desarrollar en el aula. Así, a cada plaza de ciclos le corresponderá una lista de realizaciones correspondientes a los módulos a impartir, que se debe dar a conocer al candidato/a antes de que se le adjudique dicha plaza.

Se ha desarrollado un protocolo que recoge el procedimiento a seguir si al llegar al centro se produce algún problema. En base a este protocolo, cualquier candidato/a podría renunciar a una plaza de ciclos si no se considera capaz de impartir los contenidos correspondientes a dicha plaza. También se recoge el proceso a seguir si desde el centro se considera que el/la candidato/a no es capaz de impartirla.

Esto **no** supondría la exclusión de la lista correspondiente. Lo mismo ocurriría con otras plazas de definición específica o de especial dificultad.

El objetivo es evitar el descontrol de estos últimos años, pero hay que estar al loro ante posibles abusos o arbitrariedades.

**Si necesitas alguna aclaración y/o quieres más información, no te cortes y llámanos.**

**Jornada reducida.** Es una buena opción para acumular puntos, ya que el tiempo de servicio puntúa igual que en jornada completa, pero también conlleva otras cosas: el sueldo y la cotización a la Seguridad Social serán de mitad o tercio de jornada, y en secundaria proporcional al número de horas lectivas de tu plaza. Si la reducción se debe a que la persona titular de la plaza la ha pedido por guarda legal, puede volver en cualquier momento a jornada completa y, por lo tanto, terminarse la sustitución.
Si la sustitución en jornada reducida que se te ofrece está a más de 50 Km. de tu domicilio (el que consta en Delegación) puedes renunciar a la plaza sin decaer de la lista.
La plaza mínima que te pueden ofertar es de un tercio (6 horas lectivas en secundaria).
Si ocupas una plaza de jornada reducida puedes complementar tu sueldo mediante el cobro de la prestación por desempleo que el INEM te pagaría siempre que previamente hubieras generado ese derecho. Infórmate en el sindicato y pide en el INEM una previsión de cómo se te aplicaría esta medida.
En la *Circular de comienzo de Curso* (disponible en todos los centros y colgada en la web del departamento), se hacen algunas recomendaciones respecto de cómo distribuir semanalmente la carga horaria en las jornadas reducidas.

**Cobro del verano.** Si acreditas 165 días de servicios efectivos a lo largo del curso, tienes asegurado el pago de los meses de julio y agosto, estarás de alta en la seguridad social durante este periodo y además obtendrás 1 punto por estos 60 días; pero si no es así, se reduce mucho el número de días a cobrar (desde 14 días por 164 días trabajados, hasta 0 días por menos de 6 trabajados).
Si el/la profesor/a titular sigue de baja durante las vacaciones, tienes derecho a cobrar esos días, aunque por servicios prestados no te corresponda cobrar el período vacacional entero.
En todo caso, tu contrato finalizará el 31 de agosto si eres maestro/a o en torno al 7 de septiembre si eres de secundaria.

**Trienios y primer sexenio.** Al cumplir los tres y/o los seis años de servicios hay que ir a la Delegación y pedir mediante un escrito que te los paguen. El Departamento se comprometió a pagar los siguientes al primero de forma automática (sin tener que solicitarlos), pero de todos modos hay que estar al tanto. (Recuerda: 1 año = 360 días)

**Derecho a cobrar el paro.** Si entre una sustitución y otra te quedan espacios no trabajados y/o si ocupas una plaza de jornada reducida puedes cobrar el paro, siempre que durante los últimos 6 años hayas cotizado 360 días.
Ojo con los plazos porque tienes 15 días desde la fecha del cese para solicitarlo.

**IRALE y GARATU.** Tenemos derecho a participar tanto en los cursos de GARATU como en los de IRALE (siempre que estemos en servicio activo). En el Acuerdo Regulador de Condiciones de Trabajo se recogen los cupos de plazas, así como otras cuestiones en relación con la formación del profesorado. Las condiciones de participación en estos cursos se detallan en las respectivas convocatorias.

**Permisos y licencias**. Hay muchas a las que tenemos posibilidades de acceder y así están recogidas en el Convenio, aunque a veces es necesario haber trabajado un curso completo. Si te interesa alguna, pídenos información.

**Asuntos propios**. Puedes disfrutar de este permiso siempre que hayas trabajado ininterrumpidamente durante un curso y ocupes una vacante. Los días de permiso por asuntos propios se contabilizan como días de servicio (a efectos de puntuación, antigüedad, etc.).

# CONTRATOS DE SUSTITUCIÓN

**Las listas se ordenan** en función de la puntuación acreditada teniendo en cuenta:

- ✓ Los servicios prestados en enseñanza reglada.
- ✓ Las calificaciones acreditadas en el expediente académico.
- ✓ En el caso de las listas de FP prácticas, la experiencia laboral en la especialidad.
- ✓ Y en las especialidades instrumentales del conservatorio, la actividad musical.

**Si te has apuntado en las listas de los tres territorios** y te llaman de cualquier provincia, por incómodo que sea el destino, negarte a ir supondría que automáticamente sales de todas las listas. Sin embargo hay una serie de causas de renuncia justificada que hay que acreditar debidamente. (Estar de baja, estar trabajando, estar realizando cursos o estudios…) Si quieres estar disponible en las listas, deberás acreditar la finalizacion de la situacion alegada anteriormente.

**Cuando consigas alguna sustitución,** ve a la secretaría del centro y rellena los papeles cuanto antes. Si no, puedes perder algunos días de cotización ya que los papeles tienen que ir del centro a la delegación para su comprobación y después se remiten a la Seguridad Social, proceso que lleva su tiempo.

De cualquier forma, es conveniente comprobar el número de días que llevas trabajados de vez en cuando, ya que puede haber errores. Esto se consigue fácilmente pidiendo tu vida laboral en cualquier oficina de la Seguridad Social.

La vida laboral tiene mucha importancia de cara al futuro, tanto en lo que se refiere a la jubilación como en lo referente a pedir el subsidio de desempleo. Si tus días de servicio no coinciden con los días cotizados, presenta una reclamación en la delegación y guarda una copia con el sello de entrada.

**Comprueba tu horario.** Ten en cuenta que según el convenio, en Secundaria el tope de horas lectivas es de 17 (tutoría con alumnos/as incluida), siendo 18 horas aceptables con carácter excepcional y en Primaria de 23 horas lectivas máximo (incluido el tiempo de recreo). En sustituciones en plazas de FP de hasta 25 horas lectivas pueden hacerse desdobles. Si tu horario supera las 18 horas, te recomendamos que nos consultes tu caso ya que las situaciones que se dan son muy diversas y las soluciones que se pueden buscar también.

En cualquier caso, si tu horario te genera dudas (plazas itinerantes, jornadas reducidas…) ponte en contacto con nosotras/os y trataremos de aclarar tu situación.

**Cuando tu sustitución finalice** avisa lo antes posible en delegación. Si se produce algún error, sólo admitirán las reclamaciones que vayan acompañadas de algún documento justificativo, por esto te recomendamos que además de llamar envíes un fax a la delegación desde el propio centro avisando de que estás disponible y te guardes una copia.

**Rebaremación.** Las listas de sustitutas/os se actualizan entre abril y mayo. En ese plazo hay que ir a las delegaciones a recoger nuestra hoja de servicios para comprobar que los datos son correctos y hacer los cambios que queramos: en qué territorios queremos trabajar, tipo de jornada, añadir/borrar especialidades, pasar a estar disponible...

Para comprobar si te han puntuado correctamente calcula que los servicios prestados en la pública suman 1 punto por cada 60 días trabajados y en la privada 0´33 puntos por cada 60 días trabajados. Los servicios en enseñanza reglada en centros públicos no dependientes del Departamento se computan como los de privada.

# www.stee-eilas.org

# Aterriza como puedas - Manual de supervivencia para el personal sustituto

## ADJUDICACIONES DE COMIENZO DE CURSO 2009-2010

**ACTO ÚNICO:** se ofertan todas las plazas vacantes de los 3 territorios (en Bilbo).

**LISTA ÚNICA:** siguiendo el orden por puntos de la lista, en adjudicaciones diferenciadas por colectivos:

- Maestros/as
- Secundaria (+ EOI + Teóricas de Conservatorios)
- PTFP
- Instrumentales de Conservatorios

Se podrá optar a plazas de cualquier lista en la que se figure con afinidad 1. El PL2 no obliga a coger plazas del mismo perfil.

**OBLIGATORIEDAD** de coger "lo que haya" en el momento de la adjudicación. Si no se coge nada NO SE TENDRÁ OTRA OPORTUNIDAD hasta la conclusión de los actos públicos de comienzo de curso (sustituciones por teléfono). Por TELÉFONO se repescará desde el principio de la lista.

**NO COMPARECENCIA**: Sólo será admitida acreditando debidamente una razón de peso en el plazo de 5 días laborables desde la celebración del acto al que no se compareció.

**OPCIÓN DE RESERVA**: sólo será posible

**a)** A otro colectivo en el que se participe.
**b)** A otras CCAA (se les podrá llamar por teléfono tras las adjudicaciones).

**JUSTIFICANTE**: La administración publicará en su página web la lista de los nombramientos tras cada acto. De esta forma tendrás un documento justificativo de la plaza que has cogido. La definición de esta plaza no podrá cambiar cuando llegues al centro (así está expresamente recogido en la normativa).

**PROBLEMAS EN LA ADJUDICACIÓN**: Si te encuentras con cualquier problema en la adjudicación o al llegar al centro (plazas que no existen en el centro, cambio de la definición de la plaza, etc.) acude lo antes posible a las representantes sindicales para tratar de solucionar de manera inmediata dicho problema.

**PLAZAS DE CONTRATO DE RELEVO:** Son plazas de tipo laboral y con una duración de hasta 5 años. Si alguna te interesa, pregunta e infórmate antes de cogerla.

**PLAZAS POR CUIDADO** (de menor ó dependiente a cargo). Ojo!, las personas acogidas a reducciones de jornada ó licencias concedidas por esta razón pueden reincorporarse en cualquier momento y dar por finalizado tu contrato de sustitución.

**FECHAS:** Hay que poner atención porque pueden hacerse convocatorias de segunda vuelta sin demasiado tiempo.


| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **ARABA**: Fuente de los Patos 2-3.C | 01001 Gasteiz | ☏ 945 14 11 04 | 🖷 945 14 43 02 | araba@stee-eilas.org |
| **BIZKAIA:** Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu) | 48003 Bilbao | ☏ 944 10 02 98 | 🖷 944 10 13 60 | bizkaia@stee-eilas.org |
| **GIPUZKOA:** Baso-txiki 30-34 (atzealdea) | 20006 Donostia | ☏ 943 46 60 00 | 🖷 943 45 36 27 | gipuzkoa@stee-eilas.org |
| **NAFARROA:** Descalzos 72 (lonja) | 31001 Iruñea | ☏ 948 21 23 55 | 🖷 948 22 97 90 | nafarroa@stee-eilas.org |